

Trafiko istripuak dira Euskadiko gazteen heriotzen arrazoi nagusia

Azpimarragarria da Euskadiko gazteen artean HIESak eta drogek eragindako heriotzen kopuruaren beherakada



Gazteen heriotzen arrazoi nagusiak ez dira aldatu 10 urtetan: trafiko istripuak, suizidioak eta nork bere buruari egindako lesioak, drogen ziozko istripuzko pozoiketak eta HIESa.

1997-2001 aldian Euskadiko gazteen heriotza kopurua jaitsi egin da 1992-1996 aldiarekin alderatuta, nagusiki HIESak eta drogen ziozko istripuzko pozoiketek eragindako heriotzen zenbatekoak behera egin duelako. Suizidioengatiko eta nork bere buruari eragindako lesioengatiko heriotzen kantitateak berdintsu dirau. Trafiko istripuengatiko heriotzen kopuruaren kasuan, berriz, joerak goranzkoa izaten jarraitzen du.

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen heriotzen arrazoi nagusienak. Zenbaki absolutuak. 1992-1996/1997-2001

	1992-1996	1997-2001
Motordun ibilgailuekin izandako trafiko istripuak	474	490
HIESa	425	61
Drogen ziozko istripuzko pozoiketak	155	57
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako lesioak	149	142

15 eta 29 urte bitartekoen heriotzak guztira	2.101	1.324
---	-------	-------

Iturria: Osasun Saila

Datuak adin-taldean arabera aztertuz gero, heriotza-kausetan lehena trafiko istripuak direla eta, are gehiago, gero eta ugariago direla antzeman daiteke. Igoera hori adin-talde guztietan nabari da, baina bereziki 20 eta 24 urte bitarteko gazteengan.

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen heriotzen arrazoi nagusienak, adin-taldean arabera. Tasak. 1992-1996/1997-2001

	1992-1996			1997-2001		
	15-19	20-24	25-29	15-19	20-24	25-29
Motordun ibilgailuekin izandako trafiko istripuak	12.2	23.9	18.6	13.1	25.9	20.3
HIESa	0.2	5.5	43.2	0.2	0.8	6.2

Drogen ziozko istripuzko pozoiketak	1.0	4.8	12.0	0.3	1.3	5.1
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako lesioak	2.5	7.1	7.5	2.3	6.0	8.6

Iturria: Osasun Saila

Tasak 100.000 biztanleko

Lurralde historikoei dagokienez, 1992-1996 bosturtekoan Araban eta Gipuzkoan heriotza-kausak nagusiena trafiko istripuak izan ziren, eta Bizkaian HIESa. Hurrengo bosturtekoan —1997-2001 aldian, alegia— gazteen heriotza-tasarik altuena trafiko istripuei zegokien.

Trafiko istripuen zioz hil diren gazteen tasa gorantz doa Gipuzkoan eta Araban. Gipuzkoan erregistratu da arrazoi honengatik hil diren gazteen kopururik handiena. Hala eta guztiz ere, Arabak izan du igoerarik azpimarragarriena: tasak ia sei puntu egin du gora aurreko bosturtekoarekin konparatuta (17.3tik 23.1era).

Hiru lurralde historikoetan jaitsierarik nabarmenenak izan dituzten heriotza-tasei dagozkien kausak HIESa eta drogen ziozko istripuzko pozoiketak izan dira.

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen heriotzen arrazoi nagusiak. Tasak. Lurralde historikoak. 1992-1996/1997-2001

Araba	1992-1996	Motordun ibilgailuekin izandako trafiko istripuak	17.3
		HIESa	14.4
		Suizidioak eta nork bere buruari eragindako lesioak	8.1
		Drogen ziozko istripuzko pozoiketak	5.2
	1997-2001	Motordun ibilgailuekin izandako trafiko istripuak	23.1
		Suizidioak eta nork bere buruari eragindako lesioak	5.5
		HIESa	0.9
		Drogen ziozko istripuzko pozoiketak	0.9
Bizkaia	1992-1996	HIESa	18.6
		Motordun ibilgailuekin izandako trafiko istripuak	16.7
		Drogen ziozko istripuzko pozoiketak	6.3
		Bestelako istripuak	6.3
		Suizidioak eta nork bere buruari eragindako lesioak	4.2
	1997-2001	Motordun ibilgailuekin izandako trafiko istripuak	17.0
		Suizidioak eta nork bere buruari eragindako lesioak	5.3
		HIESa	3.6
		Drogen ziozko istripuzko pozoiketak	2.2
	1992-1996	Bestelako istripuak	1.6
		Motordun ibilgailuekin izandako trafiko istripuak	21.5
		HIESa	13.7
		Suizidioak eta nork bere buruari eragindako lesioak	7.5
Gipuzkoa	1992-1996		

		Drogen ziozko istripuzko pozoiketak	5.9
	1997-2001	Motordun ibilgailuekin izandako trafiko istripuak	24.5
		Suizidioak eta nor bere buruari eragindako lesioak	7.0
		Drogen ziozko istripuzko pozoiketak	3.2
		HIESa	1.4

Iturria: Osasun Saila

Tasak 100.000 biztanleko

Erlazionaturiko datu-etaulak:

[1. taula \(pdf, 27 kb\).](#)

[2. taula \(pdf, 27 kb\).](#)

Erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)